

## **UDALA ERATZEKO ETA ALKATEA AUKERATZEKO OSOKO BILKURA.**

Organua: Udalbatza berria

Batzarra: lehenengoa

Deialdia: lehenengoa

Eguna: 2.011ko ekainak 11

Ordua: 10:00

Tokia: Udaletxe Areto Nagusia

Bertaratuak:

Zinegotziak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran

Jokin Uzkudun Goenaga

Nerea Agirretxe Aranburu

Arkaitz Arruti Eizagirre

Iñaki Irulegi Apalantza

Leire Beristain Mendizabal

Luis Berrondo Lanceta

Idazkaria: Maria Etxeberria Urretabizkaia

Aztergaiak:

1.- Adineko mahaia eratzea.

2.- Udala eratzea.

3.- Alkatea auketzea.

Esan-eginak era erabakiak

### **1.- Adineko mahaia eratzea.**

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.atalak dionari jarraiturik, zinegotzi-egiaztagutunak Idazkaritza Orokorrean jaso ondoren, bertaratutako zinegotzietan zein den gazteena eta zein zaharrena aztertu da, bi zinegotzi horiek adineko mahaia osa dezaten, udal-idazkariarekin batera.

Erabakia:

Adineko mahaia era honetan osatzea:

Zinegotzirik zaharrena: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran

Zinegotzirik gazteena: Nerea Agirretxe Aranburu

Idazkaria: Maria Etxeberria Urretabizkaia

### **2.- Udala eratzea.**

Adineko mahaiak zinegotzi-egiaztagutunak aztertu ditu, bai eta Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udaletxera bidalitako ziurtagiriak ere, zinegotzi-egiaztagutunak eta ziurtagiriak bat datozela baieztatzeko.

Horren ondotik eta legeak agintzen duenez, zinegotzi bakoitzari ondorengo galdera luzatzen zaie: zinegotzi karguaren betebeharrak zintzo beteko dituzutela zin egin edo hitz ematen duzuten, konstituzioari men eginaz Estatuko oinarritzko araua bezela.

Ondoren, zinegotziek konstituzioa beteko dutela hitza eman dute.

Erabakia:

Zinegotzien gehiengo osoa osoko bilkuran dagoela, adineko mahaiak Udala eratutzat jo du. Hona hemen, zinegotzien zerrenda: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Nerea Agirretxe Aranburu, Arkaitz Arruti Eizagirre, Iñaki Irulegi Apalantza, Leire Beristain Mendizabal eta Luis Berrondo Lanceta.

Jarraian, Idazkariak agiri hauek aurkeztu dizkio Udalbatzari, zinegotziek azter dezaten:

a). Kutxako kontaketa agiria. b). Udalak dirutan nahiz baloretan dituen izakinen egiaztagiriak eta c).Udal-ondarearen inbentarioa.

### **3.- Alkatea aukeratzea.**

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196.atalari jarraiturik, adineko mahaiak Alkatea aukeratzeko baldintzak gogorazi ditu:

\* “Zinegotzi diren zerrendaburuak dira hautagai”

\* “ Lehen bozketan, zinegotzi guztien (bertaratu gabeak barne) gehiengo osoa lortzen duena izango da Alkate”

\* “ Horrela gertazen ez bada, udal-hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako buru den zinegotzia izango da Alkate”

\* “Gehien bozkatutako zerrenda bat baino gehiago bada, zozketaz ateratzen den zerrendako buru den zinegotzia izango da Alkate”

Horrela bada, Maria Jesus Salsamendi Astiazaran zinegotzia (Bildu) eta Iñaki Irulegi Apalantza (Errezil herrin alde) zinegotziak zerrendaburu direlarik, isilpeko bozketari ekin zaio, eta hona bakoitzak lortutako botoak:

Maria Jesus Salsamendi Astiazaran zinegotziak 4 boto

Iñaki Irulegi Apalantza zinegotziak 3 boto

Erabakia:

Bozketak erakusten duenez, Maria Jesus Salsamendi Astiazaran da alkate.

Ondoren, Maria Jesus Salsamendiri ondorengo galdera luzatzen zaio: Alkate jaunaren betebeharrak zintzo beteko dituzula zin egin edo hitz ematen duzu, Konstituzioari men eginaz Estatuko oinarrizko araua bezela. Horrela bada, Maria Jesusek onartu du Alkate izatea eta Udalbatza aurrean duela, agindu ere agindu du kargu hori beteko duela, kargu horrek berekin dakartzan ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiekin. Horrenbestez, Maria Jesus Salsamendi Astiazaranek hartu egin du alkate-kargua.

Ondoren, Alkateak ondorengo idatzia Idazkariari aktan jasotzeko esaten dio, idatziak zera dio:

Zorionak guztioi, zuen ahaleginari esker posible egin duzuelako Bildu koalizioak alkatetza lor dezan.

Euskal Herrian aro berri batean sarturik gaude, aldaketaren garaian. Ilusio eta itxaropenez kargaturik dago giroa eta zuengan, herritarrongan, indar berezi bat nabari daiteke, maiatzaren 22an Bildu koalizioa emaitza ikusgarriak lortzera eraman duena eta gaurkoan alkatetza lortzera.

Pozez gainezka eta ardura osoz hartzen dugu zuen mandatua eta prest gaude alkatetzak suposatzen duen ardura handiari behar bezala heltzeko. Herrian txertatutako udala nahi dugu eta herritar aktiboak nahi ditugu, erabakitzaileak, eta horren aldeko apustu irmoa egingo dugu.

Bildu koalizioaren proiektua herritar guztien ongizatea ziurtatzeari begira garatuko dugu. Udala eraldatzea izango da gure erronka. Nola? Bildu koalizioa osatzen dugunon proiektua, abertzalea, ezkertiarra eta soberanista, herritarron esku jarritz eta beste herri bat eraikitzea posible dela erakutsiz. Guztiontzat egingo dugu lan eta guztiokin, parte hartze demokratiko eta zabala bultzatu nahi dugulako datozen urteetan, elkarrekin eztabaidatuz, guztion parte hartzeaz erabakiz eta horretarako bitartekoak jarritz.

Beraz, herritarrok hautestontzietan adierazi duzuen aldaketa politiko eta sozialaren aldeko borondateari jarraikiz, beste urrats bat egitea dagokigu orain: bide hori elkarrekin burutzea, gazteekin, hirugarren adinekoekin, kultur eta kirol elkarrekin, herrigintzan eta auzolanean aritzeko prest zaudeten guztiekin. Guztiontzat zabalik izango dira udal honen ateak eta gure eskuak.

Hemen eta Euskal Herria osoan, egoera demokratikoa lortzeari begira lan egingo du udal honek, guztion eskubide zibil eta politikoak onartuak izan daitezzen. Horregatik mehatxuak, presioak, jazarpenak, atxiloketak, torturak, eta bortxa adierazpen oro behin betikoz eta baldintzarik gabe desagertu dadin eskatzen dugu. Besterik gabe, mila esker eta zorionak guztioi. Gure udala herri honen normalkuntza politikoan lehen mailako eragilea izango da eta gure ekarpena egingo dugu zabaldutako aukera historikoa gauzatzeko helburuarekin eta gaur behatz puntekin ukitzen ari garen konponbidea, etorkizuneko Euskal Herria eraikitzeko oinarria izan dadin.

Bukatzeko, gaur gure artean nagusi den ilusio eta itxaropenaren gainean egin dugu alkatetza lortzeko bidai eder hau, baina gaurko egunean hasten dugun ibilbide honetan, konpromisoaren eta parte hartze kolektiboaren osagaiak ezinbestekoak izango zaizkigu emaitzak benetan emankorrak izan daitezzen. Hori da eskatzen dizuedana.

Horrenbestez, alkateak bilkura amaitutzat eman du. Eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut alkatearen oneritziarekin.

Errezilen, 2011ko ekainaren 11an

O.E.

Maria Etxeberria Urretabizkaia

Maria Jesus Salsamendi Astiazaran

Idazkaria

Alkatea

